

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eleuterio Izagirre Tapia

*Hernalde,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



Hernaldeko Sagasti baserrian jaioa da Eleuterio. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, lasartearra, Makazane baserrikoa. Baserrian egin izan du lan beti, soroan, esnetan, egurretan... Ez omen zituen bidaia gutxi egin Hernaldetik Tolosara, eta baita Donostiara ere. Eta Hernaldeko taberna zeraman aguazilak, haserrealdi batean, herria utzi zuenean, Eleuteriok hartu zuen bere lekua. Hala, pixkanaka-pixkanaka ardura gehiago hartuz, Eleuterio herriko aguazil, enterradore eta epaile lanetan aritu zen urte askoan.

Zintak

HRA-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-02-25
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Txikitatik lanean; baserriko produktuak saldu egiten zituzten

- **Erref:** HRA-002/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria
- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Bederatzi urte zituela Tolosara esnea eramaten, egurra ebakitzen eta horrelakotan hasi zen. Egurra txikitu ondoren gurdiekin eramaten zuten saltzera. Barazkiak ere saldu egiten zituzten. Behin amak gaztainak basoan

bildu ondoren saltzera zeramatzala Guardia Zibilak gelditu eta kendu egin zizkion.

2. Azokara egunero, esnea eta barazkiak saltzera

- **Erref:** HRA-002/005
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:07:06. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Etxeko janariak jaten ziren. Egunero babarrunak jaten zituzten bazkaltzeko. Goizean taloa esnearekin. Taloa izateko etxean artoa egin behar izaten zen. Kaleko jendeak okerrago pasatzen zuen. Etxe guztietatik kalera esnea saltzera joaten ziren. Tolosara egunero joaten ziren. Ama Tolosara joaten zen saltzera eta Eleuterio eta arrebak ere bai.

3. Baserriaren jabea Markesa zen eta hamar mila duro ordaindu behar izaten zizkieten

- **Erref:** HRA-002/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko jabea hamar mila duro ordaindu behar izaten zizkieten. Elorrioko Markes de Tolari ordaintzen zioten. Markesak jabetza asko zituen inguruan. Halako batean etxea salgai jarri zuen baina ezin izan zuten erosi, dirurik ez zuten eta. Amak etxebizitza bat erosi zuen Donostian. Baserria beranduago erosi zuten.

4. Argia beti ezagutu du Hernialden

- **Erref:** HRA-002/008
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:18:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Eleuteriok betidanik ezagutu du argia Hernialden. Indarra Asteasuko zentraletik etortzen zen. Beranduago bertako hiru baserrik sortu zuten indarra. Argiak indarra gutxiago zuen. Gero kontadoreak jarri zituzten.

5. Arrebak familia izaterakoan argia bota zuteneko kontua

- **Erref:** HRA-002/009
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:18:03. **Bukatu:** 00:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Arrebak familia izan zueneko istorioa kontatzen du: Larramendi medikua Tolosan zegoen eta bila joan zitzaizkion. Medikua iluntzean oinez ekarri zuten eta zentralera joan behar izan zuten argia bota zezaten.

6. Ura iturritik ekartzen zuten

- **Erref:** HRA-002/011
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:22:33. **Bukatu:** 00:24:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Iturria baseritik hirurehun metroetara dute. Iturria beti ezagutu du eta handik etxeetara ura eramaten zuten. Emakumeek buru gainean suila jartzen zuten ura ekartzeko. Etxeetara ura beranduago sartu zuten.</p>

7. Hernialdeko bost auzo daude

- **Erref:** HRA-002/013
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:27:52. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Oloza bailara, San Miguel, Txingurri, Enparantza eta Goi bailara dira Hernialdeko bost auzoak. Herrikoen hainbat izengoiti ere aipatzen ditu.

8. Gerra hasierako oroitzapenak

- **Erref:** HRA-002/015
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:29:58. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra hasi zenean, 11 urte zituen. Leaburu aldean tiro hotsak entzuten ziren. Jende askok alde egin zuen, beldurtuta. Familiakoek egun haiek nola pasa zituzten kontatzen du.

9. Erreketeak dantzan Hernialdeko plazan

- **Erref:** HRA-002/019
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:38:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Hernialden erreketeak zeudenean, Ziriakok soinua jo eta besteak dantzan ibiltzen ziren. Denek txapel gorria eramaten zuten. Armatuta ibiltzen ziren. Tiro-hotsak entzuten zituzten gerra hasieran.

10. Hernialdetik alde egin behar izan zuten batzuek gerra hasieran

- **Erref:** HRA-002/020
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:38:59. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Hernialdekoen bizimodua ez zen aldatu gerra hasi zelako, baina batzuek alde egin behar izan zuten.

11. Eskolan erabat erdaraz egiten zuten

- **Erref:** HRA-002/021
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:42:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Gerra hasi zenerako Eleuteriok eskola utzita zeukan. Eskolan erdaraz hitz egiten zien eta ez zuen ezer ulertzen. Maisua Zaragozako zen. Orduan dena erdaraz egiten zen eskolan. Eleuteriok beste lagun batzuk asko lagundu zioten.

12. Maisuak eta apaizak umeak jotzen zituzten

- **Erref:** HRA-002/022
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:42:42. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Maisuak makilarekin jotzen zituen. Apaizak ere bai. Dotrina apaizak erakusten zien. Erdaraz ez zekiten eta ezin ulertu ibiltzen ziren.</p>

13. Garai batean aitormenaren sakramentua nolakoa zen

- **Erref:** HRA-002/023
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:44:21. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Oraingo apaizak egin zuen azken sermoia aipatzen du. Orain Eliza asko aldatu da. Aitormenaren sakramentua nolakoa izaten zen kontatzen du. Gaur egun edozeinek daki apaizak baino gehiago.

14. Apaizei errespetua eta opariak

- **Erref:** HRA-002/024
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Lehen apaizari errespetu handia zitzaion. Apaizak nola janzten ziren azaltzen du. Berorika hitz egin behar zitzairen. San Joan egunean arrautzak ematen zitzaizkion apaizari, etxea bedeinkatu ondoren.</p>

15. Kandela eta erramu bedeinkatuak soroetan jartzeko

- **Erref:** HRA-002/025
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Jose egunean apaizak bedeinkapena ematen zuen. Erramua ere bedeinkatzen zen eta hura norberak gurutze baten antzera soroan jartzen zuen. Gurutze hari kandela bedeinkatuaren tanto pare bat botatzen zitzaion.

16. Hernialdeko festetako ospakizunak; dantzasokan neska mutilak

- **Erref:** HRA-002/026
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:55:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Hernialdeko festetan meza, etxafuegoak eta kanpaia bueltakoa izaten ziren. Ama Birjinaren egunean Meza Nagusia ospatzen zuten. Meza hartan alkateak leku berezia izaten zuen. Gero kontzejuan hamaiketakoa eta alkatearen etxera bazkaltzera joaten ziren. Arratsaldeko bosten ttunttuna izaten zen. Ilunabarrean dantzasoka egiten zuten, aurreku modukoa. Dantza hura nolakoa zen azaltzen du.</p>

17. Hernialdeko epaile eta lurperatzaile izan zen

- **Erref:** HRA-002/028
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:56:19. **Bukatu:** 01:00:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Eleuterio Hernialdeko epaile izan da. Lan hura zer zen jakin gabe onartu zuen. Gauza asko ikasi zituen. Berrogei bat urte zituen epaile izendatu zuten garaian. Postu hartara nola iritsi zen kontatzen du. Ehorzle lanetan ere ibili da. Bere lehen entierroa gogoratzen du.

18. Lurperatzeak eguzkiari begira egin behar dira

- **Erref:** HRA-002/029
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:00:13. **Bukatu:** 01:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Tolosan istripuz hildako baten ehorzketan zuloa eguzkiari begira egin behar zela esan zioten. Lurperatzaile lana ere ikusiz ikasi du.</p>

19. Ama eskolatik bota zuten alpargatarik ez zuelako

- **Erref:** HRA-002/033
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:10:10. **Bukatu:** 01:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Eleuterioren amak ez zuen eskolarik. Lasarten bizi zela alpargatarik ez zuelako eskolatik etxera bidali zuten. Amaren familiakoek ez zuten eskolarik baina ez ziren tuntunak.

20. Espainiako erregea eta Franco Foru Aldundian ezagutu zituen

- **Erref:** HRA-002/035
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:13:18. **Bukatu:** 01:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Eleuterio Foru Aldundira joan zen batean Juan Carlos erregea ezagutu zuen. Franco ere bertan ezagutu zuen. Francori buruz hitz egiten du. Franco Donostiara zihoala Tolosa erditik pasatzen zen.

21. Tolosara eta San Blas auzoko festetara astoz joaten ziren

- **Erref:** HRA-002/036
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:15:18. **Bukatu:** 01:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Garai batean Hernialdetik Tolosara astoz joaten ziren. Egunean bi bidai ere egin izan ditu. Kandelario egunean Tolosako San Blas auzoko festetara joaten ziren. Lagun batekin joan zen batean gertatutakoa kontatzen du.

22. Tolosan etxez etxe egurra partitzen

- **Erref:** HRA-002/038
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:19:21. **Bukatu:** 01:20:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Egurra zakuetan sartuta asto gainean eramaten zuten Tolosara. Han etxez etxe partitzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com